

“EUSKAL TESTU ZAHARRAK” (I) LIBURUAREN AURKEZPENEAN

Iruñean, 1987ko Maiatzak 15

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaun-Andreak: Agur.

Askotan esan izan da harritzekoa dela zein gauza guti aurkitzen den euskaraz idatzirik joan mendeetan; bai, euskal testu zaharren urritasuna eta gabezia behin eta berriz aldarrikatu da. Ez dut esango hori diotenek gezurra diotela. Baina honako hau ere gaineratu beharko litzateke agian: Egin ote ditugu behar liratekeen bilakuntzak? Bila dabilenak aurkitu ohi du. Bilakuntzak egingo balira, uste den baino gehiago azalduko litzateke agian.

Nafarroa zaharrea, hain zuzen, bila ibilitako bi lagunen aurkikunde miresgariak azaldu dira azkenaldi honetan. Nik Euskaltzaindiaren izenean zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiet.

Bat da Iruñerriko toponimiaz Jimeno Jurio jaunak egindako lan oparoa, dena udaletxeetako paper zaharretatik aterea. Hizkuntza sustraitik aztertzeke eta ezagutzeko zer iturri paregabea!

Eta bestea da Jose Mari Satrustegi euskaltzain eta Euskaltzaindiko Idazkariak gaur plazaratzen diguna, *Euskal Testu Zaharrak* izeneko liburu hau, alegia. Zein da beronen edukina? Oker ez banago, hauxe: joan mendeetan, eta batez ere Nafarroako eliza askotan, egindako euskal predikuak. Harrigarri da hitzaldi horietako batzuk zein herritan egin ziren jakitea. Harrigarri eta bihotz-ukigarri. Euskara aspaldi arras galdua den herrietan. Han mintzatzen zen euskararen lekukotasuna dugu, bada, eliz hitzaldi hauetan. Nork ez du ikusten zer-nolako garrantzia eta balioa duten iturri hauek euskara zaharrena ezagupenean aurrerapen egiteko?

Bonaparte Printzearen sailkapenean bada euskalki bat, berak Hegoaldeko goi nafarrera deitzen duena, gaur erdi hilik dena eta haatik joan mendeetan hedaduraz euskarak zeuzkan euskalkietan handiena eta zabalena izan zena. Gaur arte Elkanoko Lizarraga eta Beriain izan ditugu ia iturri bakarrak euskalki hau ezagutzeko. Hemendik aurrera, berriz, gaur plazaratzen den liburu hau ere erantsi beharko zaie beste horiei. Entzuna dut K. Mitxelena jaunak testu hauek miatu ondoren zer esan duen. Gutxi gorabehera honela edo mintzatu omen da gure euskaltzain jakintsua eta Euskaltzaindiko Iker Sailaren Zuzendaria: Uste genuen

ezagutzen genuela Hegoaldeko goi nafar euskalkia, baina aitortu behar dut gure ezagupena testu hauekin arras berritua eta antzaldatua ageri zaigula.

Testuon bilatzaile, biltzaile eta argitaratzaile den Satrustegi jaunak emango dizkigu segituan xehetasunak.

Nik zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiot “Euskararen Lekukoak” liburu-bilduma zenbaki preziatu honekin aberastu digulako.

Eta segi bilakuntzak egiten, bila dabilenak aurkitu egiten baitu!